

**1441/2016 EBAZPENA, IRAILAREN 6KOA, BARRUALDE-GALDAKAO ESIko ZUZENDARI GERENTEARENA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO BARRUALDE-GALDAKAO ESIn, ADMINISTRAZIO TALDEKO BURUA LANPOSTU BAT IZENDAPEN ASKEZ BETETZEKO.**

Barrualde-Galdakao ESIn, Administrazio taldeko burua lanpostua hutsik dago. Hori dela-eta, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetza lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan, eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan, ezartzen denaren arabera, lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzea erabaki du Gerentzia Zuzendaritza honek, honako oinarrien arabera:

**Lanpostu funtzionala:** ADMINISTRAZIO TALDEKO BURUA (BILTEGIA- MANTENTZEA)

**Kokapena:** BARRUALDE-GALDAKAO ESI (GALDAKAO-USANSOLO OSPITALEA)

**1.- Parte hartzeko baldintzak:** (Dokumentuekin egiaztatu behar dira)

- Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetan, estatutupekoa, funtzionarioa edo lan-kontratadun finkoa izatea, eta plaza jabetzan edukitzea, dagokion lanbide taldean C2 edo D2.
- C2 edo D2 lanbide taldeko titulazioaren jabe izatea.
- Gutxienez, 2 urteko lan-esperientzia C2 edo D2 lanbide taldean.
- Uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan, eta Osakidetzako Euskara Planean, ezarritako gainerako betebeharrak.

**2.- Kontuan hartuko diren meritua:**

- Taldeak antolatze eta kudeatzeko gaitasuna.
- SAPEkiko ezagutza/esperientzia: hornikuntza, stocken kudeaketa eta mantentzea.
- Ezagutza eta/edo esperientzia hornitzaileekin aurrekontuak tramitzeko eta kontratazio administratiboan.
- Ezagutza eta/edo esperientzia kalitatearen kudeaketa sistemetan eta auditorietan.
- Euskadi Informazio Gizartean Planak KZgune zentro publikoen esku jartzen dituen IT Txartelak.
- Lanpostua betetzeko interesgarri izan daitekeen eta lanpostuaren balioa areagotzen duen beste edozein meritu ere aurkez daiteke.

**RESOLUCION 1441/2016, DE 6 DE SEPTIEMBRE, DEL DIRECTOR GERENTE DE LA OSI BARRUALDE-GALDAKAO, POR LA QUE SE CONVOCA LA PROVISION MEDIANTE LIBRE DESIGNACION, DE UN PUESTO DE JEFE DE GRUPO ADMINISTRACION EN LA OSI BARRUALDE-GALDAKAO DE OSAKIDETZA-SERVICIO VASCO DE SALUD**

Encontrándose vacante el puesto de Jefe de Grupo Administración (Departamento Económico-Financiero) en la Organización Sanitaria Integrada Barrualde-Galdakao, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 28 Norma Común Tercera de la Ley 8/1997 de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, Decreto 186/2005, de 19 de julio, por el que se regulan los puestos funciones de Osakidetza y en el Decreto 255/1997, de 11 de noviembre, esta Dirección Gerencia, acuerda anunciar convocatoria pública para su provisión, por el procedimiento de libre designación.

**Puesto Funcional:** JEFE DE GRUPO ADMINISTRACION (ALMACEN –MANTENIMIENTO)

**Localización:** OSI BARRUALDE-GALDAKAO (SEDE HOSPITAL GALDAKAO-USANSOLO)

**1.-Requisitos de participación:** (Se deberán acreditar documentalmente)

- Ser estatutario, funcionario o laboral fijo en cualquier Organización de Servicios de Osakidetza, y tener plaza en propiedad en el grupo profesional C2/D2.
- Hallarse en posesión de titulación de grupo profesional C2 o D2.
- Experiencia profesional en grupo profesional C2 o D2, de 2 años.
- Resto de los requisitos del Decreto 186/2005, de 19 de julio, y del Plan de Euskera de Osakidetza.

**2.- Méritos a valorar:**

- Capacidad organizativa y gestión de equipos.
- Conocimientos y/o experiencia en SAP: aprovisionamiento, gestión de stocks y mantenimiento.
- Conocimientos y/o experiencia en tramitación de presupuestos con proveedores y contratación administrativa.
- Conocimientos y/o experiencia en Sistemas de Gestión de Calidad y Auditorías.
- IT Txartelak que el Plan de Euskadi de la Sociedad de la Información pone a disposición en los centros públicos Kzgunea.
- Se podrán aportar cuantos méritos se consideren de interés y añadan valor al desempeño del puesto.



### 3.- Euskararen ezagutza:

Osakidetzan euskararen erabilera normalizatzeko den martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak, eta berau garatzen duten arauak, xedatutakoaren arabera baloratuko da.

### 4.- Eskabideak aurkezteko epea eta modua:

Interesdunek, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakao ESiko Pertsonaleko Zuzendaritzan, aurkeztu beharko dituzte eskabideak, helbide honetan: Labeaga Auzoa 46A, 48960 Galdakao-Bizkaia. Horretarako, 20 egun balioduneko epea izango dute, Ebazpen honi dagokion iragarkia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Halaber, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan adierazitako leku eta moduetan ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea).

Interesdunek datu pertsonal guztiak jasotzen dituen eskabidea eta dokumentatutako "curriculum vitae", Barrualde-Galdakao ESiko Pertsonaleko Zuzendaritzara bidali beharko dituzte. Dokumentazioa honelakoa izan behar da:

- NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren kopia konpultsatua.
- Funtzionario edo estutupeko langile izendapenaren kopia konpultsatua, edo, hala badagokio, lan-kontratu finkodun langilea dela egiaztatzen duen agiriarena.
- Baldintzak betetzea egiaztatzen duen dokumentazioaren kopia konpultsatua.
- Kontuan hartzeko meritu guztien kopia konpultsatua.

Ez da beharrezkoa izango, aurreko paragrafoan adierazi den eran egiaztatzea, CV aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala egiaztatuta badaude, betiere izangaiak eskabidean horrela dela adierazi baldin badu.

### 5.- Balorazio Batzordea:

Balorazio batzordea osatuko da; batzordeburu Ekonomia eta Finantzako zuzendaria edo hark eskuordetzen duena izango da, eta batzordekideak honako hauek: Pertsonaleko zuzendaria (idazkari izango dena, ahots eta botoarekin), eta bi bokal, izangaiei eskatutako titulazioa izan beharko dutenak.

Izangaien balorazioa egindakoan, eta berori kontuan hartuta, proposamena osatuko da dagokion izendapena egiteko. Batzordeak lanpostua hutsik uztea erabaki dezake, aurretik arrazoitutako txostena osatuta, baldin eta hautagaiak eskatutako baldintzak betetzen ez badituzte.

Akta egingo da Batzordea biltzen den bakoitzean.

Labeaga Auzoa 46 A - 48960 Galdakao  
Tel. 944 007 000 - Faxe 944 007 132

### 3.- Conocimiento de euskera:

Se valorará conforme a lo previsto en el Decreto 67/2003, de 18 de marzo, de normalización del uso del euskera en Osakidetza-Servicio vasco de salud, y en sus normas de desarrollo.

### 4.- Lugar y forma de presentación de solicitudes:

Los interesados dirigirán sus solicitudes a la Dirección de Personal de la OSI Barrualde-Galdakao (B.º Labeaga, 46 A, 48960 Galdakao) de Osakidetza-Servicio vasco de salud, dentro del plazo de 20 días hábiles contados a partir del siguiente al de la publicación de la presente Resolución en el BOPV. También podrán presentarse en la forma establecida en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Los/as interesados/as deberán dirigir la solicitud con todos sus datos personales, acompañada de «Curriculum Vitae» documentado a la Dirección de Personal de la OSI Barrualde-Galdakao. La documentación deberá tener la siguiente forma:

- Fotocopia compulsada del DNI, pasaporte o permiso de conducir.
- Fotocopia compulsada del nombramiento de personal funcionario o estatutario o, en su caso, del documento que acredite la condición de laboral fijo.
- Fotocopia compulsada de la documentación que acredite el cumplimiento de requisitos.
- Fotocopia compulsada de todos los méritos valorables.

No será preciso acreditar en la forma indicada en el párrafo anterior aquéllos extremos que consten debidamente validados en la aplicación informática corporativa de CV, si bien esta circunstancia deberá hacerse constar en la solicitud que realice el aspirante.

### 5.- Comisión de valoración:

Se constituirá una Comisión de valoración presidida por la Directora Económico-Financiera o persona en quien delegue, e integrado por la Directora de Personal (que actuará como Secretaria con voz y voto) o persona en quien delegue y dos vocales que deberán ostentar la titulación y, preferentemente, la especialidad exigida a los candidatos.

Efectuada la valoración de los aspirantes y a la vista de la misma, se elevará propuesta a fin de formalizar el oportuno nombramiento. La Comisión podrá, previo informe motivado, declarar desierta la plaza en caso de que los aspirantes no reúnan las condiciones exigidas.





Bertan, aurkeztutako izangaiak zerrendatuko dira, eta, lanpostua beraietako bati esleitzeko, edo deialdia bete gabe uzteko, kontuan hartutako arrazoiak emango dira.

## 6.- Hautatzeko prozedura:

Ezin izango dira, inolaz ere, baloratu, deialdiaren iragarkia EHAAn argitaratzen den egunean, eduki ez diren merituak; ezta, eskabideak aurkezteko epea amaitu orduan, behar bezala aurkeztu eta egiaztatu ez direnak ere.

## 7.- Prozedurari amaiera ematen dion Ebazpena:

Hemen hasitako prozeduraren amaiera (lanpostua esleitzea), Osakidetza Barrualde- Galdakao ESiko zuzendari gerentearen Ebazpenaren bitartez egingo da, eta Osakidetza intraneten eta web-orrian argitaratuko da. Era berean, iragarki bat argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Ebazpen horrek ondorioak izango ditu iragarkia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bertan besterik xedatu ezean behintzat.

## 8.- Ebazpen honen aurkako errekurtsoak:

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen honi dagokion iragarkia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Se levantará acta de cada sesión de la Comisión. En la misma constarán los aspirantes presentados así como los motivos tenidos en cuenta para la asignación del puesto a uno de ellos o, en su caso, para declarar desierta la convocatoria.

## 6.- Procedimiento de selección:

En ningún caso podrán considerarse méritos que no se ostenten a la fecha de publicación del Anuncio de la convocatoria en el BOPV, ni tampoco los que no hubieran sido debidamente alegados y acreditados antes de finalizar el plazo de presentación de solicitudes.

## 7.- Resolución que pone fin al procedimiento:

La finalización del procedimiento que aquí se indica (asignación del puesto o declaración de desierta) se llevará a cabo mediante Resolución del Director Gerente de la OSI Barrualde-Galdakao de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, que se publicará en la intranet y la página web corporativa de Osakidetza. Asimismo se publicará un anuncio en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dicha Resolución surtirá efectos desde el día siguiente a la fecha de publicación del anuncio en el BOPV, salvo que en ella se disponga otra cosa.

## 8.- Recursos contra la presente Resolución:

Contra la presente Resolución podrá interponerse Recurso de Alzada, ante el Director General de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, en el plazo de un mes contado a partir del siguiente al de la publicación de su Anuncio en el Boletín Oficial del País Vasco.

Galdakaon, 2016ko irailaren 6an/ En Galdakao, a 6 de septiembre de 2016



Izp./Fdo.: JON GUAJARDO REMACHA

Barrualde- Galdakao ESiko Zuzendari Gerentea / Director Gerente de la OSI Barrualde-Galdakao